

#14 zenbakia. 2000ko ekainaren 16a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

Berrigara



Bergara Hiria Lehiaketa

Argazkiak Kultur Etxean domekara arte



Zatoz probatzera

RENAULT

Scénic RX4

berria



MECA

BERGARA

Erakusketa eta tailerra

Amillaga 5

BERGARA

Tf. 943 76 40 68

6 HILERAKO EKIPAJEA.



2000/08/31ra arteko promozioa

6 HILERAKO
UKIPEN-LENTEAK

14.900 PEZETAN BAKARRIK

Eta oparizat GURPILDUN MALETA eder bat.

Multipackak honako hauek ditu: hieiro aldatzen diren Multilens lenteen bi kaza, Multisoluzio Bakarraren edo Multibio Plusaren 2 pote eta lenteentzako bi kutxatila.

BAUSCH & LOMB CIBA Vision



R.P.S. 164/99 A.R.

MULTIOPTICAS
LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA



LA PUERTA AL INGLES, S. L.

2000KO UZTAILEKO IKASTAROA

MATRIKULA ZABALIK



INGELESA

- Ume eta gazteendako taldeak (7-14 urte)
- Egunero 3 ordu: 9:30-12:30

23.000 pta.

- Cambridgeko FIRST azterketarako prestaketa, 15etik 18 urte bitarteko gazteendako
- Egunero 2 ordu: 11:30-13:30

20.000 pta.

Udako ikastaroan parte hartzen duten ikasleek

EZ dute 2000ko iraila-2001eko ekaina ikasturteko matrikula ORDAINDU BEHARRIK izango!

INFORMAZIOA: Burdiñate 5, Bergara Tf. 943 76 30 01



EH, aitzakiatzat

Andres Osa "Sakona" / Irakaslea

Euskal Herritarrok erakundeetatik baztertzea da burutu behar den kanpaina. Baina aitzakia besterik ez da hori. Orokorrean abertzaletasuna, eta, bereziki, PNV dira suntsitu behar direnak.

Españolistek, PPK eta PS(O)Ek benetako beldurra euskal nazionalismoa indartzeari diote. Abertzaleen arteko loturak sendotzea da eurentzat hondamendia. Bide horretatik segita Konstituzioak sortzen duen harresia edo markoa gainditua izango bailitzateke. Horretan datza, eta ez beste ezertan, eurentzat benetako arazoa larria.

Ibilbide horretan egin beharrekoa garbi dute, ETaren erasoak medio hartuta EH baztertu abertzaleen artean elkarlanik gauzatu ez dadin. Baina aipatu indar espainiar horientzat EH baztertzea ez da helburu nagusia, PNV biluzik jartzeko aitzakia izatea baizik.

PNV ahultzea ezinbestekoa da espainiar indarrentzat. Eginkizun horre-

tan eginahalak egingo dituzte mila eratako erasoak gauzatuko dituztelarik. Momentuz gerra zikinera jo beharrik ez dute. Abertzaleen elkarlanak gora egingen badu, orduan entzungo dira soinu horiek.

Bitartean, PNVren barruan egonezina eta zatiketak daudela plazaratzea da helburu nagusia. Edo zatiketak sortu beharrik gabe daudenak haizematu. Arzallusen alderdiarentzat etsai nagusia

"Españolistek, PPK eta PS(O)Ek, benetako beldurra euskal nazionalismoa indartzeari diote. Abertzaleen arteko loturak sendotzea da eurentzat hondamendia"

ez da Aznar, bizpahiru pase eta belarondoko emateko mitin bat aski du. Zoritxarrez (N) nazionalista ordez (A) autonomista hizkiarekin uztartzen direnak ditu PNVk barruan. Gerri bueltan dauden "mitxelinak", koipeak dira (A) horrekin identifikatzen direnak. Horiematen diete buruhaustea Arzallusi, Egibarri...

Hauek eta beste zenbait inoxentek zer uste dute, EH erakundeetatik baztertuta zerbait onik egingo dutela? Horrekin lortzen dena zera da, epe motzean nahiz luzean egoera odoltsuagoa bihurtu. Hori da bakea maite izatea?

Eta azkenik, PP eta PS(O)E badakigu zer diren. Hemen aukera paregabea izan dugu nazio eraikuntzan urratsak emateko eta Espainiako gobernuaren eraso beste maila batera eramateko, zoritxarrez gerra zikinaren aplikaziora. Baina EHk, EAK eta PNVk, bakoitzak bere neurrian, nola gestionatu dute eskuetan izan dutena? Tamalez geurea da errua.<

barruan



Juanina Garai

Bergarako entrenatzailea

"Hasiera batean hurrengo denboraldiko helburua 3. mailari eustea da"

22.



Diego Martiartu

Putz aldizkariko kidea

"Putz aldizkariko umorea zabarra dela esan du hainbat intelektualek"

26.



Koldo Arruti

Torrekua jatetxea

"Misionero etorri nintzan Bergarara, arraiña ekarri eta jaten erakustera"

29.

AGENDA ETA ZERBITZUAK



BEKAK

Udako Euskal Unibertsitatean parte hartzeagatiko diru laguntzak:
Bergarako Udala. Epea: irailak 15.
Barnelegietan euskara ikasteko dirulaguntzak.
Bergarako Udala. Epea: irailak 15.

JARDUERAK

Uda 2000. Udako Kirol ekintzak. Donostiako Kiroletarako Udal Patronatua. Ekintza ezberdinak: Arku tiraketa, badmintona, bela, esgrima, wind-surf, parapentea...

IKASTAROAK

Lanbide hastapena.
Bergarako Udala, Enplegu Zerbitzua. Eskolaz kanpo dauden 16-18 urte bitarteko gazteak. Epea: Ekainak 30.
Artisautza.
Debako Arte Eskola. Udako ikastaroak: kartografiako grabatuko teknika, zeramikagintza, pintura, eskultura... Epea: ekainak 26.
Udako Euskal Unibertsitatea;
28. ikastaldia: Gaiak: Artea eta Komunikazioa, Zientziak eta Giza eta Gizarte Zientziak. Epea: ikastaroen hasiera arte.
Udako ikastaroak.
EHU. Mintegiak, ihardunaldiak, ikastaroak. Gaiak: Medikuntza, Hezkuntza, Internet, Zuzenbidea, Psikologia, Hizkuntzaritza eta abar. Izena emateko orriak. Epea: ikastaroen hasiera arte.

SARIAK

4. Gaztelemaniak CDa argitaratzeko deialdia.
Craj. Kontratu diskografikorik ez duten Gipuzkoako musiko eta taldeentzat. Epea: irailak 15.
Gazte Antzerkiaren Erakustaldia.
Irungo Udala. Gazteek osatutako antzerki taldeei zuzendua. Erakustaldia irailaren 29tik urriaren 8ra burutuko da. Izena emateko epea: uztailak 31.

LAN ESKAINTZAK

17 Administrazio laguntzailea.
Bizkaiko Foru Aldundia. Eskola Graduata, L.H. 1 edo balioidea. Epea: ekainak 21.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpeke, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE
INFORMAZIO GUNEA (Kultur Etxea)
TELEFONOA: 943 77 91 57.
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Osteguna/ostirala: 16:00-20:00
Larunbata: 09:30-13:30

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizuke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak


Juan Martin Elexpuru

Maiñontzi

Maina asko duen haurra.

- Baiña, baiña,
gure aingerutxo au
maiñontzi bat
eindda dago, e!

- Ixildu ari
maiñontzi!



Farmaziak

Eguakitza 16:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Zapatua 17:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Domeka 18:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Astelehena 19:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Martitzena 20:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Eguaztena 21:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Eguena 22:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Ogia

Domeka 18: Konde.

Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate
San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m ²	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 1	26	10	8,4	32	11	2,2
Eguakitza 2	26,5	23	1,6	32	13	2,1
Zapatua 3	13	12,5	2,2	19	13	0,3
Domeka 4	12,5	11	16,1	17	14	12,2
Astelehena 5	10	8	1,3	16	12	1,3
Martitzena 6	13	8,5	-	19	9	-
Eguaztena 7	19,5	8,5	-	22	7	-
Eguena 8	25	12,5	-	31	9	-
Eguakitza 9	9,5	9,5	12,8	16	12	15,4
Zapatua 10	9	8	6,9	16	11	7,3
Domeka 11	11	8,5	-	17	9	0,2
Astelehena 12	14	8,5	-	20	8	-
Martitzena 13	15	14	0,6	19	14	-
Eguaztena 14	17	9	-	26	5	-

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuaren Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

zorion agurrak



Izaskun Fernandez
19an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Alex Alferez
17an 3 urte.
Urte askotarako!
Aitona-amonak, Tia
Tato eta Amatxo.



Jon Durana
22an 3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Markel Labaka
18an 2 urte.
Urte askotarako!
Eukene.



Olaia Sanchez
17an 2 urte.
Urte askotarako!
Guasoak eta Julen.



Ane Blanco
17an 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta
aitona-amonak.



Josu Gorosabel
17an 3 urte.
Urte askotarako!
Familia.



Yasmina Moreno
21ean 10 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak, ahizpa
eta Aitor.



Maialen Perez
21ean 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Ander.



Izarra Berasategi
18an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nerea Larrañaga
16an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Kepa Zabaleta
16an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Alatz Lazpita
17an 4 urte.
Urte askotarako!
Lehengusuak, Josu,
Ibon eta Mariñe.



Ane Mujika
16an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Unai Arieteleaniz-beaskoa
16an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.

*Hurrengo alean,
ekainaren 23tik 29ra
bitartekoan zorion agurrak
argitaratuko ditugu.*

hildakoak

BERGARA

Juana Juaristi Barrenetxea

Ekainak 2, 76 urte

Mateo Salaberria Zangitu

Ekainak 4, 59 urte

Pedro Maria Jauregi Mardaraz

Ekainak 4, 60 urte

Eleuteria Iburguren Unanue

Ekainak 5, 87 urte

Miguel Maria Basterra

Muruamendiaraz

Ekainak 8, 69 urte

jaiotakoak

BERGARA

Julen Zengotita Basauri

Maiatzak 24

Alazne Soto Agirre

Ekainak 4

ANTZUOLA

Ointza Olano Altzerreka

Maiatzak 26

URTEURRENA

Juan Aranguren Pildain

Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainak 18,
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Angela Arroyo Sancho

Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainak 18,
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Dorleta Agirre Izurrategi

Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainak 18,
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Mateo Salaberria Zangitu

Bergaran hil zen
2000ko ekainaren 4an,
59 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ANTZERKIA

► **Free-pelota** taldearen **"La Pakita: nacido pa engañar"** kafe antzerkia gaur, eguakitza, 22:30ean Elorriko Ateneoan.

MUSIKA

► **Udaberriko kontzertua** domekan, hilak 18, 12:30ean Udal Pilotalekuan. Aurretik, 10:30ean, Gazteen Bandarekin kalejira egingo da.

► **Kaos etiliko eta Falta de riego** taldeak bihar, zapatua, 22:00etan Jam aretoan.

► **Tapia eta Leturia lauokoa** gaur, eguakitza, 23:00etan Soraluzeko Ezosi auzoan. Bihar, zapatua, ordu eta toki berean, **Ene Bada** taldea izango da.

ERAKUSKETAK

► **Bergara Hiria lehiaketa-ko argazkiak** Kultur Etxean, domekara arte ikusgai.

► **Anton Arrillagaren** "Antxintxikalariak, zezanak eta toreadoreak" margo erakusketa Arrasateko Toki-Eder kafetegian (Bañez doktorea 11), ekainaren bukaerara arte.

► **Joaquin Loidiren** margo erakusketa Donostiako Etxeberria galerian (Zubieta 20-Kontxa pasealekua), ekainaren 17ra arte egongo da ikusgai.

ANTZERKIA

Louvier's story

- Bihar, zapatua, 22:30ean, Novedadesen
- Sarrera: 1.000 pta. aurrerez. 750 pezeta langabetuendako eta 26 urtetik beherakoendako

Louvier's talde donostiarrak *Louvier's story* antzezlan eskainiko du bihar (gazteleraz), Novedadesen. Louvier's taldeak bere sorreraren 10. urteurrena betetzen du aurten. Hasieran, bikote bezala hasi ziren Lourdes Bedia eta Javier Merino, John Crawford pianu jolearen laguntzarekin, kafe-antzerkiko lanak eskaintzen. Orain dela zazpi urtetik, Oscar Terol Lourdes Bedia eta Javier Merinorekin batera ari da, eta, zalantzarik gabe, Euskal Telebistan egindako saioei esker oso ezagunak ditugu. *Louvier's story* 1998ko irailean estrainatu zen, Bilbon, eta ordutik herriz herriz izan dira, antzerkia eta telebista tartekatuz. Bergaran aurreneko aldiz izango dira.

Lourdes Bedia oñatiarraren hitzetan "antzerki lanak, telebistako saioak eta orain arte erabili ez ditugun ele-

mentuak dira azken lan honen ardatzak. Orain arte egin ditugun lan guztien arteko nahasketa antzekoa da. *Sketch* laburrak dira, 10 bat guztira, eta hainbat gairen inguruko parodiak landu ditugu, gurekin zerikusia duten gaien gainekoak". Sketchek ez dute loturarik euren artean. Lourdes Bedia azaldu digunez, "estiloen eta formen, pertsonaien eta istorioen arteko cocktail bat osatzen ahaleginduko gara, ikusleek ondo pasatzeko helburuarekin". Telebista eta antzerkia zeharo desberdinak direla diosku Lourdesek: "antzerkian inprobisaziorako tarte handiagoa da. Telebistako dinamikak, oster, astero ia espektakulu berri bat sortzea eskatzen dizu. Hirurok idazten ditugu istorioak, eta estiloen barietate horrek ikusleria zabal batengana heltzeko aukera eman digu".



Oscar Terol, Lourdes Bedia eta Javier Merino.

LEHIAKETAK

► **Idolaz** euskara elkarteak pegatina lehiaketa antolatu du, herriko jaietan banatuko den pegatinaren mezua aukeratzeko. Antzuolan jaio, bizi edota bertan lan egiten dutenek

parte hartu ahal izango dute. Euskararen aldeko esaldiak Udaletxeko Euskara Zerbitzuan aurkeztu beharko dira, ekainaren 23a baino lehen. 20.000 pezetako saria banatuko da.

► **Gipuzkoako Bazkondeak** deituta, turismoa erakartzeko

enpresa ideien eta ekimenen lehiaketa. Izena emateko epea: ekainaren 22a. 943 27 21 00.

IKASTAROAK

► **Ardo dastaketa ikastaroa**, ekainaren 27tik aurrera,

**Aldoka
Maldoka**
TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.ª ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

Jardun elkarteak antolatuta. Irakaslea Mikel Garaizabal enologoa eta sumillerra izango da. Plaza mugatuak. Izena emateko azken eguna ekainaren 20a izango da. Argibideak Jardunen (943 76 08 19).

► **Masaje teknikak** konbinatzen dituen yoga ikastaroa 12-16 urte bitarteko gazteei zuzenduta, ekainaren 26tik uztailaren 19ra arte. Izen-ematea Udaleko Gizarte Ongizate Sailean ekainaren 22-a baino lehen. Argibideak 943 77 91 25 zerbakian.

► **Lanbide Hastapena** programan izena emateko epea datorren ekainaren 30era arte zabalik dago. Beharrezkoa da 16-18 urte bitarteko adina izatea eta eskolaz kanpo egotea. Interesatuak Udaleko Enplegu Zerbitzura jo dezakete.

DEIAK

► **Mendi irteera.** Alpino Gorlak eta Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatuta, Pirineotara joateko bi eguneko irteera ekainaren 24 eta 25erako (afaria eta gaua Pantikosako aterpetxean). Txartelak Pol-Poleko bulegoan salgai. 943 76 48 51.

► **AEK euskaltegia.** EGA ikastaroa ekainaren 27tik uztailaren 28ra arte eta glotodidaktika ikastaroa uztailaren 100 ordu). Izena emateko azken eguna ekainaren 22ra arte zabalik. Argibideak 943 76 05 18 zerbakian.

► **San Joxepe** jubilatuen elkarteak ekainaren 19an eta 20an Harrizko Monastegira, Calatayudera eta Zaragozara joateko irteera antolatu du. Izen-ematea (11.300 pezeta) San Joxepe elkartearen bertan. Argibideak: 943 76 21 40.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, ekainak 21, 18:30ean, Seminarioko lokalean. Bestalde, bailarako batzar orokorra datorren urriaren 8an izango da, Arantzazuko hospederian.

► **Kilometroak 2000.** Azpeitiako Ikas Berri ikastolak urriaren 1ean ospatuko den Kilometroak 2000ko arropak eta konplementuak salgai jarri ditu Barrenkalean (lehenago Kutxan) zabalduko denda (17:00-19:30).

► **Aizkorriko lagun** eguna uztailaren 2an Zegaman. Goizeko 7:00etan Aizkorriara irteera egingo da Udaletxe aurreko plazatik, 11:00etan San Adrianen meza izango da eta Pako Iriondo Euskadiko Mendi Federazioko presidenteari omenaldia egingo zaio 14:00etan. Ondoren, 15:00etan, anaiartereko bazkaria egingo da Kiroldegian. Argibideak eta izen-ematea 943 80 13 51 zerbakian.

OHARRAK

► **Udal euskaltegian** matrikula epea zabalik. Argibideak 943 76 44 53 zerbakian.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Al limite

Eguakitza: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

ARRASATE. Alai zinema

Presa del panico

Eguakitza: 22:00.

Gigolo

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

ARRASATE. Amaia

Carta de amor

Eguena: 21:30.

EIBAR. Unzaga

Soñe con Africa

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztrena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Lista de espera

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Magnolia

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

OÑATI. Santana

Al limite

Eguakitza: 22:30.
Zapatuan: 22:30.
Domeka: 22:30.
Astelehena: 22:30.

AZKOITIA. Baztortxo

Historia de lo nuestro

Eguakitza: 22:00.
Zapatuan: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena, ikuslearen eguna: 20:00.



AL LIMITE

Zuzendaria: Martin Scorsese.
Aktoreak: Nicolas Cage, Patricia Arquette. =13 urte
Martin Scorsese (Casino, La edad de la inocencia) berriz ere New York hirian errodatu du bere azken filmea. 1990eko hamarkadaren hasieran girotuta, gaez anbulantzia batean lan egiten duen Frank Pierceren (Nicolas Cage) gorabeherak kontatzen dira. Horrenbeste urte biziak salbatzen eta jendea hiltzen ikusi ondoren, bere lanarekin nazkatuta dago Frank...

SOÑE CON AFRICA

Zuzendaria: Hugh Wilson.
Aktoreak: Kim Basinger, Vincent Perez. =Adin guztiak
Afrikako paraje zoragarrietan girotutako filmea. Auto istripu larri bat izan ondoren, Italiako alargun dirudun bat hilzorian dago. Hala ere, Afrikara joatea erabakiko du, Kenian bizi den bere semea bisitatzerako.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

- 🔧 Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- 🔧 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- 🔧 Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

Goiena Telebista Bergarako etxe askotan ikusten da dagoeneko

Bergarako Pentekoste jaiek toki berezia izan dute aste honetan GOITBn

Joan zen eguakitzaz geroztik ikusten da Bergarako etxe askotan Goiena Telebista. Beste hainbatetan, ostera, ez da oraindik ikusten. Erdialdeko (Ibargarai, Zurradero, Irala, Fraiskozuri, Irizar...) zenbait etxetan eta Matxiategi aldean ikusten da ondoen. Beste kale batzuetan GOITB ikusten da, baina ez oso garbi, eta beste askotan ez da seinalerik hartzen.

GOITB joan zen eguakitz iluntzean, Pazkuetako jaien atarian, hasi zen ikusten Bergaran. Bailarako beste herri batzuetan ikusten dela eta, behin behineko irtenbidea aurkitu nahian, Jardun elkartearen eta Zaiazko elektronika dendaren ekimenari esker Aizemenditik hasi zen Bergaran ere emititzen. UHFko 41. kanalean sintonizatu behar da Goiena Telebista.

Astean zehar Bergarako jaiei buruzko bi saio eskaini dira GOITBn. Bate-tik, jaien laburpena, orduerdi pasakoa, eguaztenean. Bestetik, Benito Lertxundi eta Bergarako Orkestra Sinfonikoaren emanaldia, eguenean. Hasierako asmoa, Errekortadoreen Txapelketa ere osorik ematea zen, baina joan zen zapatuan egitekoa zen txapelketa bertan behera geratu zen eguraldiagatik.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

EGUAKITZA 16

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza. "Bakailaoa perretxiko saltsan". Edurne Isarzelaia, Dukiena jatetxeko sukaldaria.
13:50: Benito Lertxundi eta Bergarako Orkestra (errepika).
20:00/20:30/21:00: Berriak.
21:30: Astebete. Asteko albisterik nabarmenenak, Eneko Azkaratek aurkeztua.
22:00: Gatza eta Berakatza (errepika).
22:15: Soinuz Blai (errepika).

ZAPATUA 17

13:30: Asteko saioen errepika: Jolasplast, Gatza eta Berakatza, Hamaika Magazin, Bergarako Jaiak 2000, Benito Lertxundi eta Bergarako Orkestra, Soinuz Blai, Astebete.

DOMEKA 18

13:30: Asteko saioen errepika: Jolasplast, Gatza eta Berakatza, Hamaika Magazin, Bergarako Jaiak

2000, Benito Lertxundi eta Bergarako Orkestra, Soinuz Blai, Astebete.

ASTELEHENA 19

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza. "Txopitoak letxugaz". Aitor Aizpurua, Iturritxo jatetxeko sukaldaria.
13:50: Astebete (errepika).
20:00/20:30/21:00: Berriak.
21:30: Goienasport.
22:00: Gatza eta Berakatza (errepika).

MARTITZENA 20

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza. "Bakailaoa barazkiekin" Jose Ignacio Las, Bergarako Batzokiko sukaldaria.
13:50: Goienasport (errepika).
19:20: Jolasplast.
20:00/20:30/21:00: Berriak.
21:30: Hamaika Magazin. Janari transgenikoen inguruko erreportaia, lorazaintza, margolaria eta bidaiak.
22:00: Gatza eta Berakatza (errepika).

EGUAZTENA 21

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza. "Almejak". Mari Karmen Telleria, Garoa jatetxeko sukaldaria.
13:50: Hamaika Magazin (errepika).
20:00/20:30/21:00: Berriak.
21:30: Herriz herri, zer berri? Aste honetan Arrasate ezagutzen, Maria Agirrek aurkeztuta.
21:30: Gatza eta Berakatza (errepika).

EGUENA 22

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza. "Bakailao eta patata orriak piper berdeekin". Alberto Elortza, Zelai Zabal jatetxeko sukaldaria izango da errezeta ematen.

20:00/20:30/21:00: Berriak.

21:30: Guganda. Hirugarren Munduari eskinitako saioa.
22:00: Gatza eta Berakatza (errepika).
22:15: Soinuz Blai. Edu Abasolo eta Miren Gonzalezekin.

EGUAKITZA 23

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza. "Bakailaoa langostinoekin". Jose Ignacio Las, Bergarako Batzokiko sukaldaria.
13:50: Guganda (errepika).
20:00/20:30/21:00: Berriak.
21:30: Astebete. Asteko albisterik nabarmenenak, Eneko Azkaratek aurkeztua.
22:00: Salbe Solemnea, San Juan Batailatzailearen Parrokiatik.



Jaiei buruzko saioa zapatuan eta domekan arratsaldean emango da.



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59

**GURIA
Taberna**

Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

Elorregiko bidegurutzean beste zubi bat eraikiko dute errotondaren ordean

Zubi berria eta lehengoa erabiliko dira bidegurutzeko trafikoa bideratzeko

Elorregiko bidegurutzeko trafiko arazoak ekiditeko bigarren zubi bat eraikiko du Foru Aldundiak. Zubi hau, gaur egun dagoen zubitik 30 metroko distantziara eraikiko da, Bergara aldera. Zubi biak, Bergara, Arrasate eta Oñatikoa-ren arteko trafikoa bideratzeko erabiliko dira.



Bidegurutzean sortzen diren trafiko arazoak konponduko ditu zubi berriak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu egin du Bergarako Udalak Errepide Zuzendaritzari bidalitako zuzenketa bat, eta aldatu egingo du San Prudentzioko bidegurutzean egin beharreko egitasmoa.

Horren arabera, ez da egingo errotondarik Elorregin, orain artean uste izan den bezala. Errotondaren ordean, bigarren zubi bat egingo da, oraingoa baino hogeita hamarren bat metro Bergara alderago.

Planoan ikus daitekeen bezala, gaur egungo zubia, dagoen moduan geratuko da, baina norabide bakarrekoa izango da, Arrasatetik Oñati alderakoa hain zuzen. Horrela, Arrasatetik Bergarara etortzeko, zubi zaharretik pasatu beharko da ezin

bestean.

Bergararrok, beraz, Arrasatera joateko ez dugu inongo aldaketarik jasango, baina itzulerako bidean ho-

nakoa egin beharko dugu: zubi zaharretik Oñati aldera hartu, eta 30 metrora eraikiko den zubi berritik erreka gurutzatuz, ohiko San Pru-


dentzioko bidera itzuli. Oñatikoek, berriz, bigarren zubi berria erabiliko dute bai Arrasatera, bai Bergarara joateko. Inor ezingo da Oñatira sartu zubi berria erabiliz, zentzu bakarrekoa izango baita.

ZUBIAREN ABANTAILAK

Antton Jaime diputatuak joan zen irailean aurkeztutako errotondaren alternatibarekin alderatuz, hainbat abantaila ditu irtenbide berriak: alde batetik, ez du trafikoa oztopatuko bigarren zubia egiten den bitartean; eta bestetik, askoz ere lur mugimendu gutxiago egin beharko da, hau da, ez zaio mendiari zatirik kendu beharko.

Beraz, ez da errotondarik egingo San Prudentzian, baina zubi biak biribil baten kanpoaldea balira bezala erabiliko dira.

San Prudentzioko lanek 444 milioi pezetako aurrekontua dute, errotondaren irtenbidea baino 6 milioi pezeta gehiago balioko dute. Zubia eraikitzen datozen hilabeteetan hasiko dira, lanen adjudikazioa egin bezain pronto.



Mujika
gozologia

Berezitasunak:
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA** 943 76 10 34

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

Zubiaurre osteko saihsbideko lanak aurten hasiko dira

Bergarako ekialdeko saihsbidearen trazatua onartu zuen eguaztenean Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernu taldeak. Saihsbide berria, Beasain-Durangoren parte izango da eta 3,2 kilometroko luzera izango du.

Bide azkar bezala diseinatuta dago, eta bi karril eta bidebater zabalak izango ditu. Dena den, aurrerago lau karriletara zabaltzeko aukera dago eta saihsbide izatetik autobia izatera pasatzeko.

Ekialdeko saihsbidea, Bergarak Zumarraga aldetik duen sarreran hasiko da; 300 metroko tunela izango du Zubiarre auzoaren atzeko aldetik, eta Labegaraietako industrialdea amaitzen



Argazkiko mendian, Zubiaurre ostean, egingo da 300 m.ko tunela. ARTXIBOA

den tokira arte jarraituko du saihsbideak. Han, Eibar-Gasteiz autobidearekin lotuko diren hainbat irteera egongo dira, eta baita, Deba ibaiaren gainean eraikiko

den zubi baten bidez, Arrasatera doan GI-627 errepidearekin lotuko den beste irteera bat ere.

Anton Jaime Errepideetako diputatuaren arabera, errepide berria, San Antonioko bidegurutzearan sortzen diren trafiko arazoendako irtenbidea izango da, izan ere, Zumarraga aldetik Arrasate zein Eibar aldera joan nahi duten autoek ez baitute Bergaran sartu beharrik izango.

Adituek diotenez, San Antoniotik Torrekua pareko zubira 10.000 auto igarotzen dira egunero.

Lanak aurten hasiko dira eta 2.002 urteko uda aldera irekiko da ekialdeko saihsbidea. Aurrekontua 3.045 milioi pezetakoa da.



San Antonioko bidegurutzearan trafiko gutxiago ibiliko da.

ARTXIBOA

San Martzialgo mahaiak

Uztailaren 2an ospatuko den San Martzial egunerako mahaiak alokatu nahi dituenak Kultur Etxera jo dezake ekainaren 19tik 23ra arte, 17:00etatik 21:00etara. Mahai bakoitzaren prezioa, 2.500 pezetakoa da.

Errekortadore txapelketa zapatuan

Euskadiko Errekortadoreen txapelketa, bihar, zapatua, jokatuko da. Jaietako zapatuan izan behar zuen arren, eguraldi txarragatik suspenditu egin zen. Arratsaldeko 18:00etan izango da zezen plazan. Berderatzi bikotek hartuko dute parte, horien artean Bergarako bik.

Aranzadiko ate bati sua eman diote

Matxiategin, Aranzadi Ikastolako gimnasioa ateari sua eman zioten ezezagun batzuek jaietako martitzen arratsaldean. Atea erretzeaz gain, aldagelak ere beltzitu egin ziren. Suhailtzaileek itzali zuten sua.



ARRI

Industri hornidura

Zubiaurre 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Mugikorra: 656 78 64 84.



BANKINTER

Zure hipoteka merkatuko preziorik onenean

%3,25* etik aurrera

*Irekiera komisioa: %1
*Lehen 6 hilabeteak
*35 urte bitartearaino

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

Labegaraietako hiru tximinia botata

Bota egin dituzte Bergarako Altos Hornos enpresa zaharreko hiru tximinia. Dagoeneko lau tximinia baino ez ziren geratzen; hiru bota egin dira eta laugarrena mantendu egingo da, Altos Hornosen oroitzapen gisa.

Pazkuen aurreko astean bota zituzten. Garai batean, lantegia oraindik martxan zegoenean, bederatzi tximinia zeuden. Gaur egun lau baino ez ziren geratzen, eta Altos Hornos izan zenaren adierazgarri izan dira urteetan euren altuera izugarriekin.

Zutik jarraituko duen tximiniak 60 metro inguru neurtzen zituen. Dena den,

egoera kaskarrean zegoen, eta erortzeko arriskua ekiditeko, moztu egin zuten Moyua enpresako langileek. 20 metroko altueran utzi dute. Altos Hornoseko tximiniak botatzeko arrazoia, erakitzen ari diren industrialdeko lanak dira. Izan ere, tximiniak kokatuta zeuden orubean industrialdeko azken pabilioia jasokoda. Pabilioi honetan hiru enpresa kokatuko dira.



Garai batean bederatzi tximinia zeuden.



GASTON Y DANIELA



Kruz Gallastegi 3 ☎ 943 76 07 37

BERGARA

Inglesina.



Banatzaile ofiziala

Berrigara

414 zenbakia.
2000ko ekainaren 16a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara. Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarría.
Testuen zuzenketak: Alex Labaien,
Maripi Laskurain, Estepan Plazaola.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkoroberebizar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Usa Mendikote, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Josu Okina.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate,
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Oñati).

Azaleko argazkia: Andres Indurainen
"Juncal" (xehetasuna)

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigara
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

PRESOEN GOSE-GREBA

Iazko urriaren hasieran Senideak-ek jakin zuen euskal preso politikoak gose-greba mugagabea hastekoak zirela, berezkoak izan arren ukatu egiten zaizkien esku-bideak aldarrikatzeko asmoz. Lehen gradoa jasan behar izaten du te urtetan, hau da, hogeitortu zieg barruan egon beharra, baita bazkaldu eta afaltzeko ere. Batzuek ezin izaten diote bakardadeari aurre egin, eta zoratu egiten dira; beste batzuek erasoak, jipoiak eta tratu txarrak jasotzen dituzte edota oztupoak jartzen dizkiete ikasi ahal izateko. Euskal Herriaren bake prozesuan parte hartzeko aukera ere ukatu egiten zaie, besteak beste.

Iazko azaroaren lehenean ekin zioten gose-greba mugagabeari Estatuko eta Frantziako hainbat kartzelatan, eta haien artean bergarar batzuk zeuden. Senideak-ek jendeari gertatzen ari zenaren berri eman, eta, era berean, euron aldeko sakrifizio txiki bat egin beharra zegoela ikusi zuen. Horrela, azaro hasieran egunean ordubeteko bi enkartelada egiten hasi ginen. Jendearen erantzuna polita izan zen, eta zazpi hilabete zehar, zapatu eta domekak barne, gizatasun handiko jendeak lagundu digu, gure senide presoek bizia jokoan zutela jakinik. Hori dela eta, bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkiegu.

Sendatzen oso zailak diren ondorioak laga dituen greba hau maiatzaren 27an bukatu zen; hortaz, Senideak-ekook ere bukatutzat jo dugu eguneroko enkartelada, gure eginbeharra ondo bete dugulakoan.

Dena den, jakinarazi nahi dizuegu bergarar guztioi, berriro ere, eguakitzetan, 19:30etik 20:00etara egingo dela enkartelada, lehengo moduan. Era berean, gonbitea luzatu nahi dizuegu, as-tero, ordu erdiz, gure ondoan egon zaitezten, gure senide preso-en eta munduan zehar sakabatatuta dauden errefuxiatuen alde.

Senideak

IKASTOLEN JAIETAKO AUTOBUSEN INGURUKO OHARRA

1996. urtetik hona, Debagunek, Debagoieneko euskara elkartearen elkargoak, Ikastolek antolatzen dituzten jaietara joateko autobusak jarri izan ditu. Nafarroa Oinezera eta Herri Urratsera joateko gainera bezperan ere autobusa antolatu izan du hurrengo eguneko festan laguntzera joandako ki-deentzat.

Autobusak antolatzeko ekin-tzak, sentsibilizazio lan bat egitea, eta, bide batez, euskararekiko motibatzea izan du helburu.

Iazko neguan, urteko festak pasatu ostean eta ekintzon balo-

razioa egiterakoan, guk markatu-tako helbururik lortzen ez genduela ohartu ginen; zerbitzu soil bat ematen ari ginela ikusi genuen.

Zerbitzua ematea, beste helburu barik, gure lana ez dela izan behar uste dugu, antolatzaileena baizik. Horregatik, bailarako hainbat ikastolekin harremanetan jarri ginen gure erabakia ezagutarazteko, eta, bide batez, beraiek zerbitzua antolatzea erabakiz gero, gure laguntza eskaintzeko. Ikastolek ikastolen jaietara autobusak ez antolatzeko erabakia hartuz gero, antolatuko dituenari, inor prest balego, gure laguntza emateko prest gaude.


Bestalde, Nafarroa Oinezera bezperan laguntzera joateko eta Herri Urratsera bai bezperan eta baita egunean ere joateko autobusak, antolatuko dira, batetik, gure helburuak betetzen laguntzen digulako, eta, bestetik, Herri Urratsen kasuan, iparraldeko eta hegoaldeko ikastolen egoera guztiz ezberdina delako, eta AEDn Iparraldearekin elkarlanean aritzeko Hegoaxe taldea dagoelako.

Gutun honen bidez, zerbitzu hartzaile eta herritar orori jakinarazi nahi izan dizuegu gure erabakiaren arrazoia.

Besterik gabe, agur bero bat.

Debagune
(Debagoieneko
euskara elkartearen
elkargoa)

tira biraka usoa mendikute



atrebentzia ezpada

**Kanpoko piszinak ireki dittue aste honetan.
Badaukazu piszinetara joateko ohiturarik?****Veronica Valor**

Piszinak gustatzen jat, baiña oso gutxi joaten naiz, ez daukatelako ohiturarik. Aukeran, nahixago dot hondartzara joatia.

**Amaia Osa**

Asko gustatzen jat piszinak, baiña batez be udan joaten naiz. Ixa egunero joaten gara; bestela, Usakora joaten gara bizikletan.

**J. Andoni Arteaga**

Badaukat joateko ohiturria; baiña orain ume txikixak dauzkagunez, gehixago. Udan gutxiago, asteburuetan kanpora joaten gara-eta.

**Gotzon Ibarra**

Ez daukat joateko ohiturarik, baiña orain, umiekin joan beharko gara uda partian. Bestela, hondartza edo pantanua nahixago.

**Loli Estefania**

Ez, hasiera-hasieratik daukagu karnet familiarra, baiña ez naiz sekula joan. Ez dakittenez igerixan, nahixago dot hondartzara joatia.

**Gregorio Jimenez**

Ez, orain ez; hogeit bat urte izango dira piszinetara ez naizela joan. Lehen, poliguan bizi nintzian egunero-egunero joaten nintzan.

bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

**PAZKUETAKO ZERBITZU
MEDIKUAK DIRELA ETA**

Ana Mozosen kexa jaso dugu aste honetan. Zapatuan bere lagun batzurekin barraketako taberna zegoela, 40 urteko gizon batek, antza denez, epilepsi atake bat izan zuen eta lurrera jausi zen. Gauzak horrela, Ana eta bere lagunak, telefonoz, anbulantzia eske hasi ziren eta bien bitartean, gizon batek anbulatorioko larrialdi zerbitzura jo zuen. Gertatutakoa azaldu ondoren, anbulatoriotik ezin zirela irten erantzun zioten anbulatorioan eta barraketako taberna non zegoen ere ez zekitela. Handik ordu erdira, bere lagunak atakea izan zuen gizona eroan zutenarako, agertu zen anbulantzia. Ana Mozosen larrialdi zerbitzuko jarrera salatu nahi du, honelako egoera larriak errepika ez daitezen.

Fozgintzan aintzindari.

%50^{eko}

**deskontua
erreformengatik**

**MARGA
jantzidenda**

San Pedro 20 943 76 05 37

Kizkur

Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

adituen esanetan

bergarako errotrak

Banantzeak eta dibortzioak

Banantze eta dibortzioen artean dagoen diferentzia bereiztea komenigarria izaten da. Banantze kasuetan bi aldeen arteko harremanak ez dira zeharo galtzen eta, dibortzioen kasuan, ezkontza-lotura (bikotearen arteko harremana) apurtu egiten da. Berriz ezkondu ahal izateko ezinbesteko baldintza da dibortzioa eskuratztea.

Prozesu normal batean, epe batzuk errespetatuz, bi pauso ematen dira: lehenik eta behin banantzea dator eta ondoren dibortzioa.

Banaketarako atzetik dauden arrazoen eta adostutako baldintzen arabera (bikotearen artean akordiorik dagoen ala ez, azken batean) dibortzioa lehenago edo geroago tramitatu daiteke. Bi tramite guztiz independenteak dira eta kosto aldetik ere ia bikoitza ordaindu beharra dago biak jarraituz gero. Epaitegian aurkeztu beharra dago dokumentazioa, abokatuaren eta prokuradorearen laguntzaz.

Tartean seme-alabak (beraiei pensioño bat pasatu behar zaienean batik



AMAIA ZABALETA

Abokatua

"Banantze kasuetan bi aldeen arteko harremanak ez dira zeharo galtzen eta, dibortzioen kasuan, ezkontza-lotura apurtu egiten da"

bat) edo etxebizitzaren jabetza daudenean, gauza guzti horiek lortzeko banantzea tramitatzeko lehenbizi, bikoteak bete beharrezko gutxienezko arau batzuk finkatzeko. Bestalde, dibortziatzeko denbora dezente itxoin beharra dago eta hori lortu bitartean banantzerantz jotzea gomendatzen da. Bataz beste, gutxienez bi urte behar izaten dira dibortzioa lortzeko. Lehenbiziko urratsa ematekotan, bigarrena pendiente geratzen da eta bikoteak erabakiko du dibortzioa noiz eskatu.

Bestalde, badago zuzenean dibortziora jotzeko aukera ere. Gehienbat seme-alabarik, etxerik eta bestelako jabetzarik tartean ez dagoenean, ez dago ezer arautu beharrik. Horretarako epaitzearen aurrean demostratu beharra izaten da bakoitza bere kontura bizi izan dela. Errenta aitortpena eta bestelako datuak aportatzen dira horrelakoetan. Lehen esan bezala, kostu ekonomiko aldetik, beti ere merkeagoa da zuzenean dibortziora jotzea. Baina aukeratzeko dagoen ikusi behar da.



Bataz beste, gutxienez bi urte behar izaten dira dibortzioa lortzeko. MAGNUM PHOTOS



ERROTAGAIN edo BALANZA ERROTA

Monako hau irakur liteke 1929ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean:

"Agustin Marquiegui bergararrak eskaria egin du, Ur Publikoaren Aprobetxamenduko erroldan Ubera erreka uze baliatzen den bat jasoa izan dadin. Aipatutako horrek, Bergarako Ubera auzoan dagoen Balanza errotran argindarra sortzea du helburu. Jasotzen duen ur-emia segundoko 9 litrokoa da, eta 3,06 m.ko jauzia dauka..."

1934an hartu zuen alta irin-errotta publiko honek, Jose Marquieguiren izenean, eta 1939tik agertzen den azken urterarte, 1951rarte, J.Marquiegui Mendizabalen izenean dago.

Esan zigutenaren arabera, Lorenzo Marquiegui izan zen Errota Gaineko azken errotraria. 1973an hil zen, 65 urte zituela.

Elgeta erreka eskumaldean dagoenez, bertako uze baliatzen zen. Bi pare harri eta zerrategia zeuzkan.

1965ean laga zion ehotzeari, eta gaur egun autoen tailerra dago bertan.

KOKAPENA: Uberan, elizatik 100 metrora, Bergara aldera, bidearen eskumaldean.

Antxon Agirre Sorondo

San Martin

HERRI ESKOLAK



Euskal Aste Kulturalean egingo diren ekitaldietara gonbidatzen zaituzte

Honekin lau ikasturte izango dira udako oporrak hartu aurretik Euskal Astea ospatzen dugula. Aste horretan hainbat ospakizun egiten ditugu, eta denek euskal kulturarekin lotura zuzena dute.

Helburua hauxe da: euskal kulturako jarduerak era atseginean eginez, kultura horren ezagupena zabaltzea eta afektiboki berarekiko oroitzapen positiboa izatea.

Hona hemen ikasturte honetako programa:

- **Ekainak 16:** Txupinazoa. Pregoia. Hormirudiak.
- **Ekainak 19:** Bertsoak. Abestiak. Olerkiak.
- **Ekainak 20:** Euskal dantzak.
- **Ekainak 21:** Jolas tradizionalak. Ipuinak. Asmakizunak. Txisteak. Ahokorapiloak.
- **Ekainak 22:** Pilota Txapelketako finalak.
- **Ekainak 23:** Ibilaldia: Gasteiz. Arrate.



Oporretan ere euskaraz! Ondo para lagunok!



Bosgarren mailakoak, "Euskal dantzak" egunean.




SAN MARTIN – IPINTZA – M. ALTUNA

bergarako ikastetxe publikoak

Scenic berriaren aurkezpena

Renault etxeak, **Scenic RX4** berria aurkeztu zuen joan zen ekainaren 1ean. Aurkezpen ekitaldia Aretxabaletako Baster-Alde jatetxean izan zen. **Jende ugari** hurbildu zen bertara, eta Scenic berria ikusi ostean, luntx goxoa izan zen bertaratutako guztientzat.



Zorionak Jose Mari eta Felisa!

*Jose Mari Gallastegi eta Felisa Oiangurenak urrezko ezteiak ospatu zituzten joan zen **apirilaren 30ean**. Ezkondu ere, orain 50 urteko apirilaren 30ean ezkondu ziren **Angiozarko San Migel elizan**. Urrezko ezteiak familiakoekin ospatu zituzten: Arantzazun meza entzun zuten, eta eguerdian bazkari gozoa egin zuten Jose Mari eta Felisak familiakoekin batera.*

Alaitz eta Maider Jarduneko trikitilariekin

Alaitz eta Maider izan ziren joan zen eguenean Jardunen egoitzan, **Kartzela Zaharrean**. Bisitaren arrazoia, Jardunek antolatu ohi duen **trikiti eta pandero eskolen kurtsu amaiera** da. **72 neska-mutiko** aritu dira aurtengo ikasturtean eskolak jasotzen: **28 soinua**

ikasten eta 44 panderoa. Hainbat urte dira Jardunek ikastaro hau antolatzen duena, eta urtetik urtera, neska-mutiko gehiagok ematen du izena. Aurten, esaterako, 20k eman dute izena.

Gainerakoak aurreko urteetan aritutakoak dira. Alaitz eta Maiderrek trikitiaren lehena eta orainaren inguruko hitzaldia eman zuten, eta baita hurbildutako neska-mutikoekin pieza batzuk jo ere. Bestalde, bertan zegoen bikote batek **fandango eta arin-**

arina dantzatu zuen, eta beste zenbaitzuk **dantza lotua**. Ondoren, guztiak luntx goxoa dastatzeko aukera izan zuten.



BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Udako ikastaroak • Barnetegiak



Euskararako prest!

Eskaintza

EUSKALDUNTZE maila guztiak,
ALFABETATZE eta EGA.

Erritmoak

Egunean 5 ordu, goizez.

16 urtetik gorakoentzat.

Bulego ordutegia

Goizez: 09:00-13:00 •
Arratsaldez: 15:00-19:00

Ikastaroaren iraupena

Ekainaren 26tik uztailaren
21era.

Matrikulatzeko epea

Ekainaren 7tik 22ra.

Barnetegia

Uztailaren 1etik 15era
ZERAINen.



**BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA**

Zabalotegi, 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
ber.euskudal@euskalnet.net



Bitorianatxoren jaitsierak eman zien hasiera jaiei, San Martin plaza jendez beteta zegoela.

Eguraldi kaxkarra, giro ona


Luhartz taldeak asteleheneko dantzaldia alaitu zuen Espoloian.



Luis Mari Beistegi eta Alberto Ugalde, iaz bezala, sukaldari onenak.



Benito Lertxundi eta Bergarako Orkestrak kontzertu bikaina eman zuten eguakitzean.



Aitor Zabaletak ez zuen areririk izan zapatuko Gorkakoigoeran.



Josune Fernandez eta Alexander Torre bergararrak Euskadiko txapeldun.



Herriko zezen zaleek ez zioten hutsik egin urteroko zitari.

Bideberriin maila oneko musika taldeak izan dira jaietan.



Zezen plazan txekorrekin ondo pasatzeko aukera izan zuten gazteek.

Umeek ez zuten atsedetik hartu jolas parkean.



Trapu Zaharra taldekoak ero-ero.



Buruhandiek eta erraldoiek nagusiak ere bildurtu zituzten.



Martitzeneko herri bazkarian jendea, eta giro ona.

PAZKUAK ARGAZKITAN

Ibai garbiaren alde, oztopo denen gainetik.



Ba, ez ziren jausi!

Guraso askok makina bat bisita egin behar izan du barraketara.



Herri osoan barrena ibili ahal izateko. Solas egiteko. Egunkaria irakurtzeko. Adiskide berriak topatzeko. Ele egiteko. Euskal literaturaz gozatzeko. Pasadizo berriak kontatzeko. Lana aurkitzeko aukera gehiago aurkitzeko. Kantatzeko. Jaietan erabiltzeko. Herriko aldizkaria irakurtzeko. Euskaraz bizitzeko. Mintzatzeko. Termino berriak ikusteko. Bertsolariek esaten dutena ulertzeko. Euskal Herriaren berri jakitzeko. Ibiliz ahal izateko. Solas egiteko. Egunkaria irakurtzeko. Adiskide berriak topatzeko. Ele egiteko. Euskal literaturaz gozatzeko. Pasadizo berriak kontatzeko. Lana aurkitzeko aukera gehiago aurkitzeko. Kantatzeko. Jaietan erabiltzeko. Herriko aldizkaria irakurtzeko. Euskaraz bizitzeko. Mintzatzeko. Termino berriak ikusteko. Bertsolariek esaten dutena ulertzeko. Euskal Herriaren berri jakitzeko. Ibiliz ahal izateko.

Aukera paregabea

**Ekainaren 27tik
uztailaren 28ra**

EGA ikastaroa

Ikastaroaren ordutegia: goizeko 09:00etatik 13:30era
Izena emateko azken eguna: ekainaren 22a
Matrikularen prezioa: 13.500 pta.
BERGARAKO AKULU AEK EUSKALTEGIA
 Masterreka 13, behea. 943 76 05 18

æk
izena eman

kontuola...

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Mariipi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 60. zenbakia. 2000ko apirilaren 16a.

San Pedroak eta San Martzialak

Ekainean ospatuko dira Kalebarrengo eta San Martzialgo jaiak

Ekainaren 23tik 25era San Pedroak ospatuko dira Kalebarrenen. Hilaren bukaran, berriz, San Martzialgo jaiak. Kalebarrengo jaietan, asto lasterketa egingo da eta San Martzialen, ermitako lanak amaitu ezean, itxura kaskarra izango dute jaiak.



B

i urtean behin izaten denez, aurten tokatzen da asto lasterketa San Pedrotan. Baina hori hilaren 25ean izango da. Aurretik, ordea,

bestelako ekitaldiak egongo dira. Eguaikitzean Gezalaga anai-arreben erromeriak alaituko du San Pedroetako lehenengo gaua. Zapatu goizean herriko neska-mutikoez ginkana izango dute. Eguerdian ere jolasak izango dituzte aukeran, eta 18:00etan Kuko, Truku eta Bolenwaidar pailazoez emanaldia eskainiko dute Zurrategin.

Buruhandiak 19:00etan aterako dira eta 20:00etan jasoko da arbola, urtero legez, Kalebarrengo iturri ondoan, Ondarreko dultzaineroen doinuek lagunduta. Gauean, auzotarren txanda izango da: auzo-afaria egingo dute, eta, afalostean, Hator taldearen erromeria. Gauerdian izango da ohiko sagar dantza.

Domekan txistulariek ekingo diote eguna alaitzeari, eta, meza ondoren, salda eta txorizoa banatuko dira Kalebarrenen gerturatzen direnen artean.

Dantzariak, 12:30ean, eta, arratsaldeko 17:30ean, asto karrera fama-tua. Iaz ez zen egin, baina bi urtero denez, aurten tokatzen da.

Arratsaldean Bagare taldearen erromeriak emango die amaiera aurten-go San Pedroko jaiak.



Iaz lan dexente izan zuten arbola igotzen.

SAN MARTZIALAK

Ekainaren 30ean, eguaikitzean, emango zaie hasiera San Martzial jaiak, 18:00etan, txaflero jaurtiketarekin. 19:00etan, ohiturari jarraituz, gazta eta ardoa banatuko dira, eta 20:00etan trikitilariak alaituko dute afalordura arteko tartea.


Zapatuan, uztailak 1, 11:00etan, plater jaurtiketa txapelketa jokatu da, eta 16:30ean jarraituko du. 18:30ean txokolatada, eta 20:00etan Epelde eta Larrañagarekin dantzaldia.

Afalostean ere eurek alaituko dute erromeria. Gauerdirako zaku karrera antolatu dute.

Domekan, 10:30ean txistulariak eta 11:00etan meza nagusia. Ondoren salda egongo da denentzat eta luntxa jubilatuentzat. Txirrindulari igoera ere 11:00etan izango da. Eguerdian dantzariak, eta, ondoren, Gezalaga anai-arreben saioa, baita arratsaldeko erromerian ere. 18:00etan herri kirolak; eta, 21:00etan, txaflero jaurtiketak emango die amaiera aurten-go jaiak. ■



Asto lasterketa egingo da San Pedrotan
Kalebarrenen, hilaren 23an, 17:30ean.



Julen Garitano, kirolaria

“Iron Man txapelketa munduko probarik gogorrenetarikoa da”

Julen Garitano eta Carlos Baleztena egon dira aurtengo Kanarietako Iron Man txapelketan. Julen Garitanorekin egin dugu berba.

Zer da Iron Man-a?

Iron man-a triatloi berezia da: 3.800 metro itsasuan igarixan, 180 km bizikletan, eta maratoia. Iron Man-a Hawaiiin sortu zan: hiru pertsonak diskutidu zeben hiru probetatik zein zan gogorrena, eta hori erakusteko bakoitzak egin ohi etzeban kirolian jardun bihar izen zeban. Honek sona haundixa hartu zeban Hawaiiin, eta poliki poliki mundu guztira zabaltzen jua zan.

Zergatik parte hartu?

Aspaldittik buruan neukan egunen baten egingo nebala. Orain dala hillabete batzuk pentsau neban bazala garaixa zeozer egitteko.

Zer prestaketa egin duzu?


Bost hillabetian ibilli gara entrenatzen, Santi Perez entrenadoreanekin, Antonio Merinoren entrenadorea. Goizian igarixan egitten neban 1.500 m eta arratsaldian antxitxika 20-25 km egunero; astebukaeretan gutxitxuago.

Zein zen zure helburua?

Bukatzia, eta gero denbora ona egittia. Ondo gustora ibilli nintzan, baiña laga egin bihar izan neban, tripetatik nahiko gaizki bukatu nebalako. Igarixan eta bizikletan ibilli, eta maratoian 10 km egin eta gero laga neban.

Zein mailatako jendea ibili da?

Probak nahiko fama ona dauka eta maila haundiko jentia ibiltzen da; ezta munduko probarik gogorrena, baina bai gogorrenetarikua. Antzuolatik, Carlos



Julen Kanarietako parke naturalean.

Baleztena eta neu ibilli gara. Ondarruko mutil bat etorri zan gurekin. Kanarietan Asteasuko eta Billabonako bi mutillekin egon giñan. Hauetatik, Carlos Baleztenak 12 ordutan bukatu zeban, Ondarru-

Herriko zirkuitua oso politta da eta ezta oso zailla.

Iron Man-en parte hartzen daben pertsona gehixenak amateurrak dira.

kuak 40. egin zeban, honek 10 ordu eta sei minututan bukatu zeban, Billabonakuak bere kategorixan Hawaii-rako pasia lortu zeban, munduko txapelketarako.

Eta orain zer?

Pixka bat lagatzeko asmua daukat; egixa da Iron Man-aren erronkia gelditzen jatela baiña, pixkat lasaittu eta igual, Euskal Herriko txapelketaren baten ibilliko naiz.

Animatuko zenuke inor Iron Man-en parte hartzera?

Zer dan ezagutzera animatuko neuke jentia; triatloiak nolakuak diren... Motzetik hasitta. Euskal

■ ■ ■
 “Laga egin bihar izan neban, igarixan eta bizikletan ibilli eta 10 km antxitxika egin eta gero”
 ■ ■ ■

ANTZUOLA
 Apainketak eta isola-
 menduak
 Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
 Tf.: 943 72 30 05
 Billegia: 943 78 70 40

EGAÑA
 Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
 Zoruen kutxilatu eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
 Zurrategi plaza ANTZUOLA

Juan Jose Nieto, azkarrena

Juan Jose Nieto izango da Gazte-lugainera igotzen azkarrena, ziurrenik! Joan den zapatuan lagunekin apustua egin zuen Ibarreko zubitik gorainoko bidea 50 minututan baietz igo. Anton medikuak pultsua hartu zion irteeran, eta han joan zen bera hiru moto eta auto bat bideo kamerarekin atzetik zituela. Bidea 41'24"ko denboran egin

zuen, eta goian lora sorta eskaini zioten lagunek. Gero bazkaria egin zuten. Gaztelugainera igotzen aditua den batek, batez beste, 6 km eta 900 m orduko abiadan igo zela kalkukatu zuen. Hori dela eta, "Villa Arriba"koek, euren marka hautsiko duen "Villa Abajo"ko norbait bilatu nahi dute.

Zorionak Juan Jose!



Juan Jose eta bere lagun taldea, saria eman ondoren.

JAIETAKO PEGATINA LEHIAKETA

Idolaz euskara elkarteak, urtero bezala, jaietarako pegatina lehiaketa antolatu du. Denboraz zaudete oraindik, euskararen alde lehiaketan parte hartzeko. Oso erraza da.

Kontua euskaraz hizketan egitera animatzen duen esaldi edo slogan bat asmatzea da, eta, bide batez, pegatinak egiteko izango denez, marrazki edo antzerako zerbaitekin laguntzea. Parte hartzaileak Antzuolan jaio, bizi edo bertan lan egiten dutenak izan daitezke bakarrik.

Pegatinak udaletxean zein udal liburutegian aurkeztu ahal izango dira. Lanak aurkezteko epea ekainaren 23an, San Juan bezperan, amaituko da. Beraz azkar samar ibili beharko zarete, oraindik ez baduzue ezer egin. Pegatina aukeratuaren egileak 20.000 pta. irabaziko ditu, eta, bide batez, herriko jaietan bere lana ikusteko aukera izango du. Izan ere, Idolaz euskara elkarteak, jaietako eguenean, kalean banatuko ditu pegatinok. Beraz, badakizue, animatu eta parte hartu, euskarak merezi du eta.

laz Nagore Igarzak egindako proposamenak irabazi zuen saria, "Gure berba itxeko modua bestiena bezain legezkoa" esaldiarekin.

LEHIAKETA



bertako hizkeria

Aurreko Kontuolako erantzun zuzenak:

1: A-Etxatzu ezer esan ala?

2: B-Etxian ezta(g)o iñor.

Sarituak: Itsaso Azkargorta eta Josune Iturbe

Eskuman erantzunak ipini ostian, moztu eta laga Antzuolako udal liburutegian, **DATORREN EGUAKITZA BAIÑO LEHEN.**

Erantzun zuzenen artian **5.000** pezeta eta "Antzuolako hizkera" liburuaren ale bat zozketatuko ditugu hamabostero.

Aukeratu esaldi zuzenak

- A Egin leikezu lan hau eguakitzerako?
 B Egin zeinke lan hau eguakitzerako?
- A Berak esan dau, baiña! / Berak esan dau eta!
 B Si berak esan dau!

Izen-abizenak eta telefonua:



Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA
609 157 131

BERGARA
609 150 164



Bidea eginez

Tallerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Iñaki Arbulu eta Juan Jose Etxezarreta

“Herriko jaixetan hor izango gara”

Martxoaren 26an Mexikora alde egin zuten Iñakik eta Juan Josek. Lanera joan ziren, urtebeterako. Jaixetan etortze-koak dira, baina bitartean eta hango berri jakin nahian, eurekin izan dugun elkarrizketa laburtuko dizuegu.

Mexikon, non zaudete?

Guanajato Estatuaren barruan gaude. 500.000 biztanle inguru dauzkan Zelaia hirian, “El Bajío” esaten jauen inguruan. Dana laua da. Erdi-erdittik falla batek Zelaia gehixena kruzaten dau eta horren parian dagan aldapia izan leike dagan desnibelik haundixena. Hirian zihar, ixa aldenik alde trenbidia be badago eta bape barrerarik ez daguez, gau eta egun sekulako bozina hotsa, kilometro bat inguruko trenak pasatzen dira. Hau izan leike Zelaia zaratarik tipikuena.

Zer itxura hartu diozue?

Zelaia bera ezta oso polita. Berdegunerik bape eztago eta hautsa ugari. Euririk ezta egitten eta errekarik eztago. Ur dana lurpetik etaraten dabe. Etxe bakoitzak, teillatu gainian depositua dauka. Antenak eta ur deposituak besterik ez dira ikusten. EEBBko kotxiak asko ikusten dira, batez be zaharrak.

Etxeko ura ezta erateko modukua, botillakua eran bihar da. Lehenengo inpresia etzan oso ona izan. Biajia oso luzia izan zan eta ordu aldaketa (7 ordu gutxiago) egun batzutan igarri giñuan. Tenperatura aldaketa be haundia izan zan.

Mikel Gantxegi bergarra eta bere andriakin, Mari Josekin, egoten gara; jatorduak alkarrekin egitten dittugu. Behinguan bergarrak eta antzuolarrak ondo konpontzen garela esan leike. Lantokian ordu asko sartzen



Marijose, Juanjo, Hugo Rust, Iñaki eta Mikel, Zelaiaiko Arrano Beltzan.

dittugu; zapatu goizian be lana egitten dogu.

Bizi garen etxia ezta beste mundukua. Kolonia baten barruan dago eta teniseko pista, saskibalo pista, futbol zelai txiki bat eta pizina bat dare.

Arrano Beltza izeneko euskal etxe antzeko bat be badago. Palan be egin dogu eta musian be ibilli gara.

Mexikarrak zer moduzkoak dira?

Beste odol batekuak dila emoten dabe. Zeozer eskatutakuan “ahorita mismo” erantzuten dabe, baiña pazientzia haundixakin itxoin bihar da. Ezetza gutxitan esaten dabe, baiña ondoren, erak nahi dabena egitten dabe. Astelehenian eta jai ondorengo egunetan, lanera jente asko falta izaten da.

Neskak ezagutzeko oindio eztozu “txanserik” eduki. Ezagutzen dogu jentia urtebeterako etorri eta hemen ezkondu dana. Hori gertatzeko, ezte txarrak izango. Gehixenak guapak die eta nahikua pintauta ibiltzen die.

Zer botatzen duzue faltan?

Etxekuak, lagunak, horko bezelako tabernak, eta oiñ arte trankil egoteko denporia be bai. Euri pixkat eta haize freskua be gustora hartuko giñuzke.

Herriminik bai?

Normalian eztauku horrekin pentsatzeko asti gehixegi. Lanian eta kalia euskeraz egiten dogu. ETB be ikusten dogu...

Nori esango zeniokete horra joateko?

Mari Josen partez, batez be Seba eta Elayko gizabaliabide departamentu osuari. Bromak alde batera lagata, gauza desberdiñak ikustia gustatzen jakonari, eguzkixa eta berua nahi dabena eta biaje luzia egitteko gertu daganari.

Agur bat Antzuolako lagunendako.

Gorantziak eta herriko jaixetan izango galakuan, agur bero bat, batez be, etxekuei eta kuadrillakuei. ■

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07


Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •

GAILUR

taberna eta gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga


ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak •
- Paper margotuak •
- Mokatetako tapizatuak •

Agorrosingo kanpoko igerilekuak irailaren erdialdera arte izango dira zabalik

Asteazkenean zabaldu ziren Agorrosingo kanpoko igerilekuak. Kanpoko igerilekuak irailaren 17ra bitartean izango dira zabalik, goizeko 10:00etatik 21:00ak arte. Agorrosingo instalakuntzak, berriz, 8:00etan zabalduko dira. Kanpoko igerilekuak zabaltzearekin batera, barrukoak itxi egingo dira publikoarentzat. Barruko piszinak uda kanpainarako erabiliko dira bakarrik, ekainaren 26tik uztailaren 21era arte.

Kanpoko igerilekuei dagokienez, hamaka berriak erosi dira eta langile berriak kontratatu ditu Udalak udarako. Igerilekuetan, kontrola, zaintze eta garbiketa lanetan Fernando Agirre, Monika Diez, Idoia Elkorro eta



Bi langile azken txukuntze lanak egiten eguaztenean bertan.

Amaia Zabaleta arituko dira eta atezaintzan, berriz, Saioa Berraondo, Josune Gantxegi, Iñaki Jauregi eta Antonio Zabala. Bestalde, Ainhoa Alberdi, Inma Beristain, Jon Joseba Bolinaga

eta Ines Segura izango dira sokorrista lanetan. Bestalde, uraren temperatura 19°C-takoa zen eguaztenean.

Bergarako igerilekuek 27 urte bete dituzte eta momentu honetan ez dute ige-

rilekuen alorrerako indarrean dagoen legedia betetzen zenbait puntutan. Yosune Linazisoro Kirol Zerbitzuko arduradunak argitu digunez, "barruko igerilekuekin daukagu arazo nagusia, ez baitute araudia betetzen. Hori dela eta arazo horri irtenbide bat topatzeko lanean gabiltza eta epe laburrean irtenbideren bat topatzeko asmoa daukagu. Diputazioko ordezkariekin ere izan gara gaia aztertzen".

Gaur egun Agorrosingo igerilekuek 3.547 bazkide dituzte eta kopuru horrek ziurrenik gora egingo du. Yosune Linazisoren arabera, "gero eta erabiltzaile gehiago dituzte piszinek eta uda partean nabarmenagoa da hori".

Aranguren Eibarren garaile



Sumofic taldeko Xabier Aranguren txirrindulari elgetarrak gazte mailako San Juan saria irabazi zuen Eibarren joan zen ekainaren 4an. Partaideek 70 kilometroko ibilbidea bete behar izan zuten eta Xabier Arangurenek, beste sei lagunekin batera, tropeletik ihes egitea lortu zuen Eibarrera heldu baino lehen. Jarrera Arrateko igoerari ekin zioten iheslariak. Arangurenek atzean laga zituen berarekin zetozen txirrindulariak eta Arrateko helmugara bakarrik heldu zen. Mendiko saria ere eskuratu zuen Arangurenek.

Bestalde, ekainaren 7an, Alegian, erlojuz kontrako Gipuzkoako txapelketan, Igoitz Gabilondo bergarra eta Xabier Aranguren 12. eta 13. tokian sailkatu ziren, hurrenez hurren. Ibilbidea 25 kilometrokoa izan zen eta 17 txirrindularik hartu zuten parte proban.

**DENA
100etik**

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3



Barrenkalea 31

Gaspar

**JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-a**

Tf. 943 76 20 02

BERGARA

Larkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.

Tf. 943 76 25 03

Juanina Garai Bergarako entrenatzaile

Juanina Garai 37 urteko futbol entrenatzaile arrasatearra Bergara taldeko entrenatzailea izango da. Garai 11 urtez aritu da Arrasateko azpiko kategorietan entrenatzaile lanetan eta joan zen denboraldian lehen errejonaleko taldea entrenatu zuen. Bere hitzetan, "hsiera batean, hurrengo denboraldirako helburu nagusia mailari eustea da".

Bestalde, Carlos Arnaiz BKEko presidentek uko egin dio taldeko zuzendaritzan jarraitzeari. Datorren ekainaren 23an izango den batzar orokorrean presidentek berria izendatuko dela espero da


JUBENILAK ETA NESKAK TXAPELDUN

Bergarako jubenil futbol taldeak 2-0eko emaitzarekin



Argazkian, Gipuzkoako finala irabazi zuen jubenil taldea.

ZAITEGI



Juanina Garai.

irabazi zion Donostiako Kostkas Danak taldeari Gipuzkoako finala, Beriyo futbol zelaian. Arkaitz Arejola-leibak eta Ignacio Dobaok egin zituzten bergararren golak. Partidu amaieran Xabi Lete taldeko kapitainak txapeladunen kopa eskuratu zuen Juan Luis Larrea Gipuzkoako Futbol Federazio-

ko presidentearen eskutik. Datorren denboraldian Bergarako taldeak jubenilen ohorezko ligan jokatu du.

Bestalde, nesken futbol taldeak 1-0eko emaitzarekin irabazi zuen kopako finala, Zarauzeko Antonianoren aurka, Orion jokatu duen partiduan. Jone Azkaratek sartu zuen partiduko gol ba-

karra bigarren zatiaren hasieran.

Fernando Oregiren ohorezko kadete futbol taldeak, Romo eta Gasteizko Santa Maria taldeen aurka ligako finala jokatu zuen Lezaman. Santa Maria taldeari penaltietan irabazi ondoren, Romoren aurka galdu egin zuten bergarrek.

Muguruzak galdu Bergara Hiriko finalean

Ander Muguruza pilotari bergararrak ezin izan zuen iaz Bergara Hiria txapelketan lortutako garaipena errepikatu. Promesen mailan, Muguruzak eta Peñagarikanok 13-22ko emaitzarekin galdu zuten Etxabe eta Zapirainen aurka. Ander Muguruzak partidu ona jokatu zuen baina Peñagarikanok ez zion aurreko partiduetan beste lagundu. Kantxan izan ziren lau pilotarietatik Zapirainek jaso zuen partidu amaieran pilotari onenari zegokion trofeoa.

Lehen mailako finalean, Mikelek eta Albizurik uste baino errezago lortu zuten txapela, Eguskitza eta Erauskin I.ari 22-9 irabaziz. Albizurik jaso zuen pilotari onenaren trofeoa.

Sari banaketa ekitaldian, lehenbizi, Iker Muruamendiarazi omenalditxo bat egin zitzaion, aurten profesionaletan debutatze-




Bergara Hiria txapelketako finalistak.

agatik. Luis Mari Gutierrez pilota sekzioko arduradunak plaka bat entregatu zion Bergarako taldearen alde emandako urteengatik. Nere Amaia Zabala kirol zinegotziak eta Pedro Abarrategi Kutxako ordezkariak pilotariei sariak banatu zizkieten.

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEA,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12




OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga z/g
OÑATI
943 78 24 13




Irizar 2
☎ 943 76 14 95

JAUJA
KIROLAK

I P I N T Z A K O

futbol txapelketa



Inoiz baino talde gehiago lehiatu eta berdintasuna liga hasieran

Aurtengo Ipintzako txapelketa nagusiak, beteranoak eta nesken mailak bereiztu dira eta guztira 46 talde dira lehiatu. Nagusien mailan Osintxu eta Angiozar izan dira jokatuak hiru partidua irabazi dituzten bakarrak. Biek ere talde indartsuak dituztela erakutsi dute. Bestalde, A multzoan, Bildurbarek taldeak Txokokuak 7-1eko emaitzarekin menderatu zuen eta Juan Luis Etxanizek sartu zituen bere taldeko zazpi golak. Golegileen sailkapenean abantaila hartu du dagoeneko Etxanizek...

Beteranoen kategorian nabarmentzekoa da Aintzinakoak Os Jardineiros-i sartu zion goleada: 17-0. A Ze Flaxak bere multzoko lidergoari eutsi zion, Sorari 11-0 irabazi ondoren. Nesken mailan, seniorretan, berdintasuna da nagusi bost talde hiruna punturekin baitdaude. Kadeteetan, Eibartarrak eta Baleike liderak dira baina Antzuolak partidu bakarra jokatu du oraino, 5-0eko emaitzarekin irabaziz.

azken emaitzak

NAGUSIAK

Beccia-Osintxu	2-6
Fatxurtu-Altos Pornos	5-0
Down-Hotel Amuskibar	2-1
Fo Fo Fo-Arloteak	3-2
Ezinleike-A Ze Flaxa	0-2
Txokokuak-Bildurbarek	1-7

BETERANOAK

Sora-A Ze Flaxa	0-11
Aintzinakoak-Os Jardineiros	17-0
Arloteak-Canalejas	4-2
Txipiron-Guipuzcoana	1-1

NESKAK

Eibartarrak-Gu ta gutarrak	9-0
Jo ta ke-Baleike	4-10
Elgeta-Antzuola	3-2
Zutaz Pentsatzen-Pentol's Team	14-1

partidua

NAGUSIAK

Zapata 17
09:15: Mongatxurak-Tojhu
10:30: Arloteak-Fatxurtu
11:45: Hotel Amuskibar-Fatxurtu
Astelehena 19
19:15: Bildurbarek Opel-Altos Pornos
20:30: A Ze Flaxa Guipuzcoana-Osintxu

Martitzena 20

19:15: Mongitxurak-Matxakategi
20:30: Down-Ezinleike

Eguaztena 21

19:15: Wartxutale-Gore
20:30: Fo Fo Fo-Txokokuak

BETERANOAK

Eguena 22
19:30: Guipuzcoana-Sora eta Arloteak-Os Jardineiros
20:30: Bildurbarek-Txipiron eta Ezinleike-Canalejas

NESKAK

Eguakitza 23
19:00: Jo ta ke-Gu ta gutarrak eta Baleike-Eka (kad.)
20:00: Aldrebesak-Antzuola (k) eta Elgeta-Ogizun (sen.)
21:00: Zutaz pentsatzen-Lai Lai Lak (sen.)
21:00: Pentol's Team-Antzuola (sen.)

sailkapenak

A multzoa

	P	J	GA	GK
1. Arloteak	7	3	4	0
2. Fatxurtu	6	3	8	2
3. Fo Fo Fo	6	3	6	7
4. Bildurbarek Opel Lam	4	3	10	5
5. Altos Pornos	3	3	3	7
6. Txokokuak	0	3	2	12

B multzoa

	P	J	GA	GK
1. Osintxu	9	3	13	6
2. Down	4	3	5	2
3. A Ze Flaxa La Guipuzcoana	6	3	4	2
4. Beccia	3	3	6	9
5. Hotel Amuskibar	0	3	6	9
6. Matxakategi	0	3	1	7

C multzoa

	P	J	GA	GK
1. Mongatxurak	6	2	7	4
2. Gore	6	3	6	5
3. Tojhu	3	2	3	1
4. La Juve	3	3	3	7
5. Wartxutale	0	2	3	5

D multzoa

	P	J	GA	GK
1. Angiozar	9	3	8	2
2. Game Over	6	3	9	7
3. Matxakategi	4	3	4	4
4. Uta	1	3	5	10
5. Mongitxurak	0	2	2	5

Nagusiak A

	P	J	GA	GK
1. Aintzinakoak	3	1	17	0
2. Arloteak	3	1	4	2
3. Canalejas	0	1	2	4
4. Os Jardineiros	0	1	0	17
5. Ezinleike	0	0	0	0

Nagusiak B

	P	J	GA	GK
1. A Ze Flaxa	3	1	11	0
2. Txipiron	1	1	1	1
3. Guipuzcoana	1	1	1	1
4. Sora	1	1	0	11
5. Bildurbarek	0	0	0	0

Neskek, kadeteak

	P	J	GA	GK
1. Eibartarrak	6	2	11	1
2. Baleike	6	2	14	5
3. Antzuola	3	1	5	0
4. Eka	0	1	1	2
5. Aldrebesak	0	1	1	4
6. Jo ta ke	0	1	4	10
7. Gu ta gutarrak	0	2	0	14

Neskek, seniorrak

	P	J	GA	GK
1. Zutaz Pentsatzen	3	1	14	1
2. Lai Lai Lai	3	1	3	1
3. Potzu ta zapaburuak	3	1	2	1
4. Elgeta	3	2	4	4
5. Pentol's Team	3	2	3	15
6. Antzuola	0	2	3	5
7. Ogizun	0	1	1	3

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Etxe handia salgai
Morentinen (Nafarroa).
943 76 23 12.

Angiozarren bi
etxebizitza salgai.
Ortuarekin. Prezio ona.
656 748 287.

Barrenkalea.
Egunez: 656 732 026.
Gauetz: 943 35 39 91.

Etxea eta garajea
salgai Bolun.
943 76 07 77.

Jaka. Igerilekua, tenis-
pista... 943 76 29 56.

Zubiaurre.
943 76 30 46 / 21 84.

Koldo Eleizalde.
943 76 50 86 (gauetz).

Artekalea.
619 326 228.

ERRENTAN EMATEKO

Pisua alokairuan udan
Torreviejan.
943 76 35 26 / 43 77.

Benidormen.
943 76 63 21 / 06 28.

Laredon, hondartza on-
doan. 943 79 52 80.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatorz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen.
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

3. LOKALAK

EROSI

Lokal komertziala erosi
nahi nuke S. Lorentzon.
300 m². 607 82 53 06.

ERRENTAN EMATEKO

Bolun (100 m²) eta
Arruriagan (18m²)
lokalak alokairuan.
Deitu 606 96 23 80
telefonora.

Lokala alokairuan Mar-
tokoan. 943 76 11 13.

4. LANA

ESKAITZAK

Emakumea etxeko
lanak egiteko gertu.
666 643 490 (Herminia).

Auxiliar lana egingo
nuke. 616 848 362
(Monika).

Mutila edozertan lan
egiteko gertu.
600 600 531.

Neska edozertan lan
egiteko gertu.
646 611 383.

Dendako lanetan
esperientzia duen
emakumezkoa lanerako
gertu. 943 76 07 69.

Pisua alokairuan Doni-
bane Garazin astebu-
ruetarako edo gehiago.
00 33 559 371 666.

Bungalow bat Torrevie-
jan, udan. Hondartzatik
gertu. 943 78 14 72.

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua alokairuan hartu-
ko genuke San Antonio-
Labegarieta inguruan.
943 76 18 73.

Pisua edo logela hartu-
ko nuke alokairuan
Bergaran edo inguruan.

Deitu 646 975 367
telefonora.

Pisua hartuko nuke
alokairuan.
943 76 04 70 / 11 01.

ETXE KONPARTITUAK

Donostiako erdialdean
pisu handia konpartitu-
ko nuke urte osoan.
670 087 427 (Ainhua).

Etxea konpartituko nuke.
627 046 374 (Diego).

Pisua osatzeko neska
behar da. 943 76 55 26.

2. GARAJEAK

SALDU

Matxiategi.
943 76 23 12.

Bolu. Prezio ona.
943 76 47 99 (gauetz).

Bolu. 2 plaza.
Deitu 616 049 865
telefonora.

Antzuolan, Zurrategin.
Deitu 943 76 64 00
telefonora.

Antzuola, Kalegoi.
943 76 47 16.

Masterreka.
696 460 406.
Ozaeta. 943 76 73 00.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan
Zubiaurren.
943 76 23 53.

Garajea alokairuan
Santa Marinan.
943 76 41 88.

ERRENTAN HARTZEKO

Zubiaurren garajea har-
tuko nuke. 943 76 08 26.

SUBIJAI

Gazteentzako moda

**Beherapenetako
azken
egunak!**

**Telesforo Aranzadi 2
(lehen Baster zegoen lekuan)**



ESKAERAK

Pertsona behar da umea zaintzeko Antzuolan. 943 76 64 24.

Emakumea behar da Antzuolan etxeko lanak egiteko. 943 787 106.

Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 08 25.

Emakumea behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 08 08.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Klase partikularrak ematen ditut, maila denetan. 656 752 739 (Ainara).

Ingeles klaseak: OHO-DBH. Ekaina eta uztaila. 943 76 54 12 (Irene).

Kitarra, soinu eta pandero klaseak ematen ditut. 943 76 45 73.

ESKAERAK

Pascal programako klaseak hartuko nituzke (injinerutza, 1. maila). 943 76 10 44.

Injinerutza 2. mailako C programari buruzko klaseak hartuko nituzke. Deitu 943 78 09 66 telefonora.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Scooter motorra. Skipper 125. Matrikulatua. 943 76 61 05.

Motorra. 220.000 pta. 943 76 03 72.

Opel Kadett (SS-AL). 667 209 279 (Iker. 18:30etik aurrera).

Ford Escort 16V familiarra (SS-BB). 943 79 91 27.

Seat Ibiza (SS-AC). 150.000 pta. 943 72 22 77.

Kawasaki GPZ 400 FI motor beltza. 31.000 km. 150.000 PTA. 943 70 21 11.

Cagiva Custom 125 motorra. 3.800 km. 120.000 pta. 943 76 03 72.

Scooter 50cc, Gilera Runner. Ia berria. 686 704 693 (Asier).

Seat Ibiza 1.2 (SS-AP).

64.000 km. Prezio ona. 943 76 28 01.

7. ANIMALIAK

SALDU

Katu siamesa. 2 urte. 943 76 39 95.

Cooker ingeles txakurkumeak. Merke. Hil eta erdi. 636 877 574.

Artzain txakurrak salgai. 656 728 500.

8. DENETARIK

SALDU

Bi logelako kanpinda. Oso berria. 943 74 05 37.

Lasterketetako bizikleta. Kadete maila. 20.000 pta. 943 76 07 87 (gauzez).

Mendiko bizikleta. 4-7 urte arteko umeendako. 943 76 03 74.

365 Roller karabana. Egoera onean. 610 260 744.

Kirol arku eta osagarriak salgai. 943 76 08 18.

Butano sua salgai.

Deitu 636 877 574 telefonora.

Jangelako mahaia eta 6 aulki. 943 76 34 48.

Pianoa salgai. Oso merke. 943 76 26 35.

EROSI

Bigarren eskuko ordenagailua erosiko nuke. 943 76 47 67.

Txanpon zaharrak erosiko nituzke. 639 822 790.

GALDU


Urrezko pulsera galdu dut Tavexetik Antzuolara bidean. 943 76 14 40.

Hilaren 2an urrezko kate bat galdu nuen, medaila, gurutzea eta perlarekin. Eskertuko da. 943 76 24 52.

Urrezko pultsera galdu nuen hilaren 2an Ibargarain. Eskertuko da. 943 76 10 31.

AURKITU

Ibarrondo auzoan aurkitutako bi giltza Antzuolako udaletxean daude.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

ERROTULAZIOARAKO LAGUNTZAILEA
Arabar lautada. 31295/6

KOMERTZIALA
Donostia. 31909/3

PRODUKZIOAN LAGUNTZEKO 2 LANGILE
Gasteiz. 32434/4

BANATZAILEA
Gasteiz. 32928/2

PROGRAMATZAILEAK
Bilbo. 33224/5

KOMERTZIALAK, 25
Bilbo. 33324/1

INFORMATIKA IRAKASLEA
Bilbo. 33343/2

FRESATZAILEA
Mungia. 33397/3

ELEKTRIZISTA ARDURADUNA
Etxebarri. 33463/2

KONFEKZIOARAKO MAKINISTA
Bilbo. 33576/5

METAL AROZGINTZARAKO PIOIA
Urola erdia. 33643/2

INFORMATIKA EKIPOEN MEKANIKARIA
Bilbo. 33710/5

INGURUGIROKO GESTIOA
Plentzia-Mungia. 33753/4

PERTSONAL ADMINISTRAZIOARAKO IRAKASLEA
Arabar lautada. 33931/1

ORTU ZAINTZAILEA
Bergara. 33652/2

DIESEL MOTOREEN MEKANIKARIA
Bilbo. 30372/4

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

FRANTSSES IRAKASKUNTZA


Ikastaro trinkoak uztailaren 3tik 21era

Izena emateko epea: ekainaren 30era arte.

Informazio gehiago:

Mizpildi 3, 1-ezkerra. BERGARA.
Tf. 943 76 30 55

Orduetgia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00



"LEINTZ" UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa kalea 2-4,
20550 Aretxabaleta

Aretxabaletako Leintz Udal euskaltegiak irakasle lan poltsa sortzeko deialdia ireki du.

Izena emateko azken eguna: ekainaren 22a.
Informazioa: 943 79 21 68.

Jatetxerako GARBITZAILEA behar da

943 76 20 38

ZERBITZARIA behar da

943 76 25 37

DIEGO MARTIARTU. Putz aldizkariko kidea

"Putz-en helburua ondo pasaraztea da"

Putz aldizkariko erredakzioan dihardu Diego Martiartuk. Putz iazko uda aldera sortu zen eta dagoeneko hiru ale daude kalean. Baserritar ilustratuendako aldizkari gisa definitu du bertako lan taldeak, nahiz eta intelektual zenbaitek, aldizkariak dabilen umorea zabarra dela eta tonua politikoki ez zuzena dela esan. Sortzaileen helburu nagusia irakurleak ondo pasatzea da.

G. Non eta nola sortu zen Putz aldizkaria?

E. Bi lagunena kontua da, Barentin Ramon eta Ramon Ugalderena. Hauek biak Ostiela aldizkarian aritutakoak dira urtetan. Ostiela laga zutenean, Leintz bailaran aldizkari bat kaleratzea pentsatu zuten. Arrasateko hainbat laguni deitu ziguten, lehenago ere idazten jardundakoak.

Honela, Iker Barandiaran, Garako kazetaria, ni, Ostielan aritutakoa, Joxe Otadui, Gaztetxeko fanzinea egiten duena, Jon Ruiz de Zarate argazkilaria eta beste batzuk elkartu ginen, zortzi gutzira. Hau joan zen urteko uda aldera izan zen, eta Durangoko azokarako lehenengo alea atera genuen.

G. Kolaboratzaile asko dituzue. Batzuk oso ezagunak gainera.

E. Bai, arestian aipatutako lagun taldea bilduta, kolaboratzaileekin hasi ginen harremanetan. Batzuk lehenagoko ezagunak ziren, edota Ostielaren garaiak. Kolaboratzaile batzuen kasuan lehenagoko erreferentzia geneukan, eta beste batzuek, aldiz, ez genituen



Putz, taberna eta liburudendetan eros daiteke Bergaran.

ezagutzen. Hauekin harremanetan jartzeko Argiako gida hartu eta deitu egin genien.

Oso erantzun ona jaso dugu. Kolaboratzaileen artean, Pako Aristi, Mikel Markez, Asier Serrano, Unai Iturriaga, Pelman eta beste batzuk ditugu.

G. Zein helbururekin sortu zenuen?

E. Idazle zein irakurleak ondo pasatzeko. Aldizkari bat egitea oso polita da. Eta hasiera batean fanzine erako zerbait egitea pentsatu bagenuen ere, azkenean zerbait serioagoa egitea erabaki genuen.

G. Nola definituko zenuke, ba, Putz?

E. Baserritar ilustratuendako aldizkaria. Behin tontakeria hori otu zitzaigun eta halaxe botako dizut. Bestalde, umoreari garrantzi handia ematen dion aldizkaria da. Helburu nagusia, irakurleak ondo pasatzea da, ez dadila izan intelektualendako aldizkaria. Euskal kulturaren horrelako nahiketxo dago. Guk, aldiz, edozeinek irakurtzeko modukoa egin nahi izan dugu. Honelako aldizkari baten hutsunea nabaritzen genuen, eta gure helburua lortu dugula uste dugu, batez ere, irakurleek egin dizkiguten komentarioak entzunda. Kritika ez hain onak ere entzun ditugu zirkulu intelektual batzuetatik: gure umorea zabarra dela esan digute, eta tonua desegokia eta politikoki ez zuzena.

G. Juan Martin Elexpuruk ere kolaboratu du Putzen.

E. Taldeko batek ezagutu zuen Durangoko azokan. "Krabelin Beltza", bere liburuaren iruzkin bat egin genuen aldizkarian, eta taldekoa erakustera hurbildu zitzaion Durangon. Ostean hots egin genion eta bera kolaboratzeko prest azaldu zen.

G. Bergaran zer nolako harrera izan du?

E. Lehenengo alea ondo saldu zen, baina bigarrena nahiko jaitsi da. Bergaran oraindik jendeak ez du aldizkaria ezagutzen. Arrasate eta Aretxabaleta inguruan kontrakoa gertatzen da, baina langileok ere bertakoak garelako. Hala ere, edonork har dezake parte Putzen, eta bergararren batek zerbait idatzi eta bidali nahiko balu guk pozik hartuko genuke.

etxalar
kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68

Etxebizitza berriak Antzuola erdian

K&T OROSLI INMOBIILIARIA

- 90 m²ko etxebizitzak, 3 logelakoak
- Leku ezin hobean
- Punta-puntako materialekin eraikiak
- **20 milioitan!**

Santi Kutz 8, behea. 20230 Legazpi. Tf. eta faxa: 943 73 05 25.


PANA DE ROKUA
TATETXEAL

Asteburuetan bertako
babak eta saiheskia

SALBADOR 10 **ELGETA**
Tf. 943 76 82 73

Bergara Hiria Argazki lehiaketan 44 lagunek hartu dute parte

Ezagutzera eman dira dagoeneko, "Bergara Hiria XVI. Argazki lehiaketa"ko irabazleen izenak. Zuri beltzean, lehenengo saria Andres Indurain irundarrak jaso du "Observaciones" lanarekin. Bigarrena, Juan Antonio Unzurrunzaga bergararrak "Musika" lanarekin, eta hirugarrena, Berangoko Jabier P. Fdez. Ferrerak "Pushka"rekin. Bergarako onenaren saria Ainara Leteren "Autoerretatua" k jaso du.



Ainara Leteren "Autoerretatua", herriko onena zuri-beltzean.

Koloretako sailean Jabier de la Flor bilbotarraren "I/G III" lanak jaso du lehenengo saria. Bigarrena herrian geratu da; Jose Agustin Gurrutzagak jaso du "Malen" lanarengatik, eta hirugarrena, Jesus Alonsok eraman du Brinkola-Legazpira. Lanaren izenburua "Amapola" izan da. Azkenik, herriko onenaren saria Bemito Canterorentzat izan da "Torla" izeneko lanagatik.

Orotara 44 lagunek hartu dute parte Pol-Pol argazki taldeak antolatu ohi

duen lehiaketan. Koloretan 79 argazki jaso ziren eta zuri-beltzean 72. Epaimahaia lagun hauek osatu zuten: Joaquin Garcia Liceaga Afiap taldekoak, Jose Luis Irigoien Eibarko argazki taldekoak eta Julio Albarran Ortzadar taldekoak.

Sari banaketa gaur, eguakitzan, egingo da 20:00etan Kultur Etxean. Erakusketan, domekara arte egongo da ikusgai Kultur Etxean bertan.

Roberto Izagirreraren "Bilaketa" lanak jaso du Literatura lehiaketako lehen saria nagusietan


XV. literatura lehiaketako irabazleen izenak ezagutzera eman dira dagoeneko. Lehenengo saria, Roberto Izagirrek jaso du, "Bilaketa" lanagatik. Bigarrena Marta Gomezentzat izan da, "Zinemagilea, historia eta zita" ipuinagatik, eta hirugarrena Agurtzane Crespok eraman du "Igorri" ipuinagatik. Oler-

kien sailean, Junkal Arrutiren "Denborearen sendabelarra" lanak jaso du saria.

Bestalde, Lander Ugartek, Markel, Izaro Larrañagak eta Jaione Yerak ere lehenengo saria eraman dute bakoitzak bere adinekoen taldean.

Sari banaketa zapatuan izango da, 12:00etan Zabalotegiko aretoan.

erreseinak



Joxemari Iturralde
Euliak ez dira argazkietan azaltzen
Narratiba

Brezo, Lucinda eta Luziaren artean Rekexo izeneko ikertzailea azalduko da. Hiru nesken zelatan ibiltzeko agindua du ikertzaileak. Rekexo oso neskazalea da, ezin du disimulatu emakume ederren aurrean, eta hiru neska oso ederrak dira. Baina eguneroko gure maitasun istorio gehienan gertatu ohi den bezala, ikertzaile guapo eta kutiziatsua gaitetik, emakumeek erabakiko dute. Iturralde ezagunaren azken eleberria dugu hau.

- Erein. 229 orr. 2.700 pta.



Labrit
Paradisua
Pop-rock

Emakumezko ahotsak, apur batzuk izan arren, beti izan dira euskal kantagintzan. Hor ditugu Lourdes Iriondo eta Estitxu, Itziar Egileor, Amaia Kasasola eta Amaia Zubiria, edota gaur egungo trikitilariak eta hainbat rock taldeko abeslariak. Oraingo honetan, indarrez datorkigu beste emakume abeslari gazte bat: Labrit. Abeslari ez ezik musika eta letra egile ere badugu, bera baita hemen aurkezten dizuegun estraineko diskoan biltzen diren 11 kantuetako egilea. Bide Ertzean taldearekin hasi zen Labrit eta "Paradisuan" honekin bakarkako bideari ekin dio. Hori bai, luxuzko kolaboratzaileak izan ditu hasierako honetan.

- Oihuka. 2.200 pta.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMIA

Ezker eskuma

1. Nahasmen. 2. Egokiera. Ez eme. 3. Nafarroako herria. Garen hauek. 4. Lehen biak. Bizkaiera, lehengusua. Bat. 5. Infin., nekatu. Kiskalia. 6. Argona. Ikusmenik ez dutenak. 7. Aukera. Toka, nuen. 8. Iodoa. Kontsonante errepikatua. Azkenekoa. Berrogeita hamabi. 9. Katuaren umeak. 10. Burdinolak. Har ezak! Modu atzikia.


Goitik behera

1. Erdipurdiko. 2. Amaiera. Aluminioa. 3. Herrestan dabilen ornogabe-mota. Potasioa. Emaizta. 4. Nekez asetzen direnak. 5. Lehor. Istu. Potasioa. 6. Bibliako pertsonaia. Tente. 7. Bizkaiko herria. Gipuzkoako hiria. Molibdenoa. 8. Nitrogenoa. Irabazle. 9. Bizkaieraz, du. Gaiak. 10. Zuhaitz-mota. Janzki-mota.

Soluzioa

1. Nolasahiko. 2. Akabera. Al. 3. Har. K. Uztia. 4. Asekaitzak. 5. Siku. Tu. K. 6. Moises. Zut. 7. Ea. Irun. Mo. 8. N. Garaita. 9. Dan. Ekaiak. 10. Urtia. Niki. 1. Nahasmen. 2. Okasioa. Ar. 3. Lareki. Guk. 4. Ab. Kusia. I. 5. Neka. Errea. 6. Ar. Itsuak. 7. Hautu. Nian. 8. I. Z. Z. Lili. 9. Katakumeak. 10. Olak. Toi. Ki. 1. Nolasahiko. 2. Okasioa. Ar. 3. Lareki. Guk. 4. Ab. Kusia. I. 5. Neka. Errea. 6. Ar. Itsuak. 7. Hautu. Nian. 8. I. Z. Z. Lili. 9. Katakumeak. 10. Olak. Toi. Ki.

bonofotoa




Miguel Angel Elkoroberezibar

Tokiederretik gertu dagoen XIII. mendeko dorre hau Bergarako zaharrenetakoa da. Zein da bere izena?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

- Noiz eraikiko da San Prudentzioko errotonda?
A- Datozen hilabeteetan
B- Uda aldera
C- Ez da errotondarik eraikiko
- Zein izango da Bergarako futbol taldeko entrenatzailea?
A- Jose Luis Beitia
B- Jorge Valdano
C- Juanina Garai
- Nork irabazi du aurtengo literatur lehiaketa, nagusien mailan?
A- Jon Sanchez
B- Roberto Izagirre
C- Marta Gomez



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Arantza Egibarrentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Arantzari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Domingo Martinez de Irala / 1509 urtea** Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izen-deiturak: Telefonoa:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Carbonell
oliba-olioa 0,4°, litroa
399 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Orain dala 25 urtetik dauka jatetxia zarauztar honek; lehen Osintxun, eta duela 9 hilabetetik, berriz, Bergaran. Sukaldari aparta izatiaz gain, futbolzalia be bada, eta gaziagoa zanian, Logroñesen atezain ibillittakua be bai.

Jaixetan, jai baiño lana gehixago, ezta?

Horrelaxe izan behar da, batzuk ondo pasatzeko beste batzuk lan egin behar.

Egunen bat hartu dozu jai?

Domeka gaba.

Jaixetan gehixen gustatzen jatzuna?

Lagunartian poteatzia.

Eta gutxien?

Lana egin behar izatia.

Juergazalia zara?

Lehen bai, baiña orain ez daukat ez denborarik, ezta sasoirik be.

Zelatan zarauztar bat Bergaran?

Misionero etorri nintzan, arraiña ekartzera eta jendiari arraiña jaten erakustera.

Etxian be zeuk prestatzen dittuzu jatorduak?

Bai, etxian be neu naiz sukaldarixa.

Zure espezialidadia?

Arraiña plantxan eta parrillan.

Zer nahixago, prestatzia ala jatia?

Bixak, neuk prestatu eta neuk jan.

Sukaldian manixaren bat badaukazu?

Bai, nere arraiñak beste iñork ez ikutzia.

Sukaldari bat?

Neurekin lan egin daben hiru-lau sukaldarik asko erakutsi doste.

Zuk be perejilla jartzen jetzu plater daneri?

Bai, baiña ez jat gustatzen gordiñik.

Txikittan zer izatia nahi ziñuan?

Gizon bat.

Koldo Arruti

Ze afiziño daukazu?

Kirol danak gustatzen jat, baiña batez be futbola, atezaiña izandakua naiz-eta.

Ze ekipotan jokatu ziñuan?

Logroñesian.

Ze ekipotako zalia zara?

Lehenengo futbolarik aldekoa, eta, gero, Realekoa.

Atezain bat?

Ez dakitt, asko dare, baiña bat aipatziarren, Iribar, zarauztarra da-eta.

Bizitzeko toki bat?

Zarautz.

Zarauzkua izanda, ez dozu itsasua faltan nabaritzen?

Bai, asko gaiñera.

Euskal Herriko toki bat?

Zarautzik Getarixara bittarteko paseua.

Eta Bergarakua?

Bergararik Osintxurakua.

Oporretarako planik?

Ez, oraindik behintzat ez.

Nora joateko ohiturria daukazu?

Zarautzera eta Extremadurara.

Aukeran, hondartza ala mendixa?

Zarauzkua izanda...

Amets bat?

Zorrak pagatzia, negoziua aurrera ateratzia eta lasai-lasai jubilatzia.



Kantu ikastaroa

Mikel Markezen eskutik

20 ORDUKO IKASTAROA.

Denon artean erabakiko dugu ordutegia

3.000 PTA BAZKIDEEK

3.500 PTA GAINERAKOEK

Ikastaroaren bukaeran

Kantu Liburutxo bat

argitaratzeko asmoa daukagu.



APRA
ARABA ERRIOXAKO ARDOA

Ardoa eta bere inguruko gai guztiei buruzko ikastaroa

Ardo dastaketa ikastaroa



Irakaslea

Mikel Garaizabal,
enologoa eta sumillerra

Egunak

Ekainaren 27a, 28a eta 29a eta
uztailaren 4a eta 5a

Ordutegia

19:00etatik 21:00etara.

Lekua

Kartzela Zaharra

Prezioa

5.500 pta. bazkideek; 6.000 besteek.

Gehieneko kopurua

24 lagun

Izena emateko azken eguna

Ekainaren 20a

Informazioa eta izena ematea: 943 76 36 61 / 08 19



Pertxa-Txiki taldea

Duela urte batzuk, Pazkuetan, futbol txapelketako finalak jokatzen ziren Seminarioko futbol zelaian. Orain Ipintzako txapelketan gertatzen den moduan, talde dezente izaten ziren lehian baina txapelketan adin ezberdineko taldeak aritzen ziren orduan, hasi azpiko kategorietatik eta nagusien mailara arte. Goiko argazkia 1982. urtekoa izan daiteke eta bertan agertzen diren mutilek Pertxa Txiki taldea osatzen zuten. Antza denez, alebin mailako finalera iritsi ziren eta hor ditugu partiduaren atarian, argazkilariaren aurrean, jokatu aurreko tentsioa eta nerbioak zelabait kontrolatu nahirik. Futboleant jokatzeke erabiltzen zuten blusa berdea jaietan kalez kale ibiltzeko jantziko zuten ziu-

renik. Manu Diaz genuen taldeko entrenatzailea eta taldeko jokalarien maila ikusita, lan asko emango zieten egun hartan bere aurkariei. Partiduaren emaitza jakiterik izan ez dugun arren, hara hor argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Jon Zabala, Kepa Egaña, Jagoba Larrañaga, Ibon Odriozola, Iker Beistegi, Andoni Sagastume, Mikel Lazkano, Xabier Arregi eta Manu Diaz.

Makurtuta: Asier Altuna "Kixi", Iker M. Gallastegi, Aitor Salaberria, Josu Arana, Xabier Garamendi, Aitor Bolinaga eta Markel Goenaga.

Argazkia: Pedro Jose Eguren

**PINTXO eta BOKADILOK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92



umelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!


San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



3.000.000 ibilgailu baino
gehiago aseguratuta
lasai-lasai errepidean



Problemarik gabe

Egin kontuak! 2.400 bulezo, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konponketa zune



MAPFRE

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

Laser depilazioa

Egin proba
konpromiso
barik.



Deitu
eta
eskatu
txanda!

Zure gorputzak merezi duelako

Berreskura itzazu edertasuna
eta harmonia

Tratamendu pertsonalizatuak



943 76 31 71

LILURA

Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7. BERGARA



Garai berrietan ere...

Txukuntasuna



Argitasuna



Erosotasuna



Osotasuna



Lasaitasuna



hemen aurkituko duzu

a eme Interiores • a eme Sukaldeak • centro Hogar Muebles • Sofa leku

GRUPO

Amuebladora
Mondragones